

LEHEN ZIKLOKO EUSKARAZKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

AHOZKO ULERMENA:

1.- Ahozko diskurtsoaren esanahia ulertzea. Testu horien informazio garrantzitsua antzematea eta beste egoera batzuetan aplikatzea ulertutakoa.

1.1- Ea gai den gelan erabiltzen diren ahozko testuen informazio orokorra eta zehatza ulertzeko.

1.2- Ea jarraitzen dien jarduerak egiteko emandako aginduei edo jarraibideei.

1.3- Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldeko ikaste-ekintzetan.

1.4- Ea arretaz entzuten duen.

IDATZIZKO ULERMENA:

2. - Haurren bizitzarekin loturako testu idatzi errazak ulertzea.

2.1- Ea ulertzen dituen eskolan erabiltzen diren testuetan adierazten den informazioa: abisuak, oharrak, gonbidapenak, eta eskolako testuak.

2.2- Ea testuak zer dioen azaltzen duen bere hitzekin, haren zentzu orokorra adieraziz, ideiak koherentziaz eta erraztasunez adieraziz esaldi osatuak erabiliz.

2.3- Ea era antolatuan azaltzen dituen gertaerak, bizipenak eta testu erraz eta laburrak.

2.4- Ea laguntza jasota, ulermen arazoak argitzeko estrategiak aplikatzen dituen.

2.5- Ea testuan agertzen den lexikoa laguntza jasota ezagutzen duen.

3. - Laguntza jasota informazio zehatza aurkitzea eta hautatzea.

3.1- Ea informazio zehatza aurkitzen duen testuetan, jarraibideak oinarri hartuta.

3.2- Ea informazioa aurkitzeko orduan, erabiltzen dituen hizkuntzakoak ez diren osagaiak: irudiak, testuaren egitura....

3.2- Ea aurkitzen duen emandako testuei buruz egiten zaizkien galderari erantzuteko informazioa.

AHOZKO ADIERAZPENEA:

4. - Hitzez adieraztea gertaerak, bizipenak edo ideiak eta era antolatuan azaltzea testu erraz eta laburrak.

4.1- Ea ikasleak ulertzeko moduan eta erraz adierazten dituen bere ideiak, iritziak, bizipenak eta jakintzak, ikasgelan gertatzen diren ohiko egoeretan.

4.2- Ea ahozko testu erraz eta laburrak sortzen dituen (deskribapenak, azalpenak....) aurrez emandako erduei jarraituz.

5. - Ikastetxeko harreman egoeretan parte hartzea, harremanaren oinarriko arauak betez eta gainerako pertsonen begirunea erakutsiz.

5.1- Ea solaskideari begiratu eta entzuten dion.

5.2- Ea hitz egiteko txandaren zain egoten den..

- 5.3- Ea gizabidezko oinarrizko arauak erabiltzen dituen.
5.4-Ea gogotsu hartzen duen parte elkarrekiko lankidetzan.

IDATZIZKO ADIERAZPENA:

6. - Haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, irakaskuntza mailari dagozkion egokiera eta zuzentasuna erakutsiz.

- 6.1- Ea testuak sortzeko gai den emandako jarraibideak betez (lan metodoa).
6.2- Ea gogoz parte hartzen duen testuaren plangintza egiteko, idazteko eta berrikusteko talde jardueretan.
6.3- Ea gero eta hobeto idazten duen, idazketaren oinarrizko arauak betez: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio markaren bat.
6.4- Ea egiten duen, laguntza jasota, idatzitako testua berrikusi eta zuzenketaren bat.
6.5- Ea testua txukun eta argi aurkezten duen.

7. - Idazketari buruz gogoeta egitea, testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz.

- 7.1- Ea ohartzen den esaldien eta testuen ordenak aldatzeak ondorioak dituela.
7.2-Ea ezagutzen dituen ohiko testuetan esaldia, hitza eta silaba.
7.3-Ea landutako ortografia arauak betetzen dituen.

8. - Oinarrizko terminologia ezagutzea eta hizkuntza jardueretan erabiltzea.

- 8.1- Ea dakien zein diren landutako testu generoen izenak eta idazketaren konbentzio nagusiak(testua, esaldia, hitza, silaba, letra, letra larria, letra xedea eta puntua).
8.2- Ea interesik duen bere idazlanetan ortografia arauak betetzeko.

9. - Laguntza jasota, informazioa eta komunikazio teknologikoak erabiltzea ikaslearen mailari egokituta.

- 9.1- Ea ikasteko erabiltzen dituen informazio eta komunikazio teknologiak, bere mailari egokitutako euskarriez baliatuta.

10. - Ikastetxeko harreman egoeretan parte hartzea, harremanaren oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonei begirunea erakutsiz.

- 10.1- Ea solaskideei begiratu eta entzuten dien.
10.2- Ea hitz egiteko txandaren zain egoten den.
10.3- Ea bere mailan ezarritako arauak betetzen dituen.
10.4- Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.

11.- Gelako eta komunitate hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta hareekiko jarrera baikorra izatea.

- 11.1.- Ea identifikatzen duen bere eta ikaskideen hizkuntza errepertorioa, haiekiko jakin mina eta begirunea adieraziz.

12.- Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea.

12.1.- Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.

12.2.- Ea emandako jarraibideak betez, gero eta hobeto zuzentzen dituen normalean egiten dituen akatsak.